

**Zk-1304**

33/2003 DEKRETUA, otsailaren 18koa; honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseilua sortu, eta EAeko barneko arroen Plan Hidrologikoa izapidetzeko prozedura arautzen da.

Uren Legearen Testu Bateginak –uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak– eta uztailaren 29ko 927/1988 Errege Dekretuak –aipatutako Legearen II. eta III. tituluak garatu, eta Uraren Administrazio Publikoaren eta Plangintza Hidrologikokoaren Araudia onesten duenak– arautzen dituzte jabari publiko hidraulikoa, uraren erabilera, eta erkidego barneko arroen esparruan eskumen eskusiboa duten autonomia-erkidegoei eman zaizkien eskumenera erabilera.

Beste alde batetik, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onetsitako Euskal Herrirako Autonomia Estatutuak 10.11. eta 10.33. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurralde-eremuaren barruan, «ur-aprobetxamenduaren, ubideen eta sail ureztatuaren gaineko eskumen eskusiboa, urek ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egiten badute, bai eta ur mineralen, ur termalen eta lurpeko uren gainekoa ere». Orobat, Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du Estatuak legez interes orokorreko zatik jo ez dituen eta beste autonomia-erkidego batzuk ukitzen ez dituzten herri-lanetan gainean.

Hortaz, uztailaren 8ko 1551/1994 Errege Dekretuak –Estatuko Administrazioaren Ur Baliabideen eta Aprobetxamenduen Arloko Zereginak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku uzteari buruzkoa denak– ezarritakoari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio bere eskumen eskusibokoak diren egitekoak.

Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuak 1994ko maiatzaren 31ko Transferentzietarako Batzorde Mistoaren Akordioa onesten du, ur-baliabide eta -aprobetxamenduen arloko zereginak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku uzteari buruzkoa dena. Akordio horren arabera, eskualdatutako zeregin eta zerbitzu horiek eta, orobat, baliabide materialak eta pertsonalak Garraio eta Herri Lan Sailari atxikitzen zaizkio.

Lehendakariaren uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuak (irailaren 17ko 19/2001 Dekretuaren bidez aldatua) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu, eta, orobat, horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu. Dekretu horrek 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak beteko ditu uren arloko legegintza arautzen dituzten zereginak.

**Nº-1304**

DECRETO 33/2003, de 18 de febrero, por el que se crea el Consejo del Agua del País Vasco y se regula el procedimiento de tramitación del Plan Hidrológico de las Cuencas Internas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El texto refundido de la Ley de Aguas, aprobado mediante el Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, así como el Real Decreto 927/1988, de 29 de julio por el que se aprueba el Reglamento de la Administración Pública del Agua y de la Planificación Hidrológica, en desarrollo de los títulos II y III de la referida Ley, regulan el dominio público hidráulico, el uso del agua y el ejercicio de las competencias atribuidas a las Comunidades Autónomas con competencia exclusiva en la materia sobre las cuencas internas.

Por su parte, el Estatuto de Autonomía para el País Vasco aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece en su artículo 10.11 y 10.33 que corresponderá a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio la competencia exclusiva en «aprovechamientos hidráulicos, canales y regadíos, cuando las aguas discurren íntegramente dentro del País Vasco y aguas minerales, termales y subterráneas» así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general o cuya realización no afecte a otros territorios.

En consecuencia, y mediante Real Decreto 1551/1994, de 8 de julio, Sobre Traspaso de Funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en Materia de Recursos y Aprovechamientos Hidráulicos, se procede a transferir a la citada Comunidad Autónoma las funciones cuya competencia exclusiva le corresponde.

El Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 31 de mayo de 1994, sobre traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones y servicios en materia de Recursos y Aprovechamientos Hidráulicos establece que dichas funciones y servicios transferidos junto con sus medios materiales y personales, quedan adscritos al Departamento de Transportes y Obras Públicas.

El Decreto 7/2002, de 16 de julio, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la CAPV, modificado por el Decreto 19/2001, de 17 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, en su artículo 14, establece que será el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente el que desempeñe las funciones reguladas por la legislación en materia de Aguas.

Era berean, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak 8. m) artikuluan lehendakariari ematen dio dekretuak sinatzeko eta dekretuak argitara ditzaten agintzeko ahal. Halaber, Lege berak 26.3. artikuluan sailburuei ematen die haien sailei dagozkien gaietarako buruzko dekretuak Jaurlaritzari proposatzeko ahal, Jaurlaritzak onets ditzan.

Azaroaren 20ko 306/2001 Dekretuak Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du. Dekretu horren 15.a) artikulua honakoak esleitzen dizkio Uren Zuzendaritzari: alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean osorik dauden arroen plangintza hidrolögikoa egitea, haren jarraipena egitea eta berraztertzea, uztailearen 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Uren Legearen Testu Bateginak 14.3., 40.4. eta 41.2. artikuluetan ezarritako irizpideei jarraiki; eta, bestetik, erkidego arteko arroen plangintza hidrolögikoa egiten parte hartzea.

Plangintza hidrolögikoaren agiriak behar bezala izapidetu eta onesteko, babes-perimetroak zehaztu eta ezartzeko, eta gehiegi ustiatutako akuiferoen deklarazioa egiteko, nahitaezkoa da kide anitzeko organoa sortzea, eta, beraz, horrelaxe dago ezarrita Uren Legean.

Horrenbestez, Dekretu honek zehaztasunez azaltzen eta finkatzen ditu kide anitzeko organo horrek izango dituen osatura, izaera eta jarduteko oinarrizko arauak, era horretan, organoak ematen zaizkion egitekoak eta zereginak behar bezala bete ahal izateko. Izan ere, ur-baliabide eta -aprobetxamenduen esparruko zereginak eta zerbitzuak eskualdatzeari jarraiki, eta, zehazkiago, Euskal Autonomia Erkidegoan osorik dauden arroen plangintza hidrolögikoa egin eta berraztertu ahal izateko, premiazkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Uren Kontseilua sortzea.

Hargatik, nabaria da kide anitzeko organo hori behar bezala sortu behar dela, erkidego barneko arroen plan hidrolögikoa egiteari ekiteko.

Gaur egun Euskadiri dagozkion erkidego arteko arroen plan hidrolögikoa onetsita daude, eta duela gutxi 60/2000 EE Zuzentaraua eta Plan Hidrolögiko Nazionala promulgatu dira. Hala, beraz, ezin da geroko utzi erkidego barneko arroen plangintza hidrolögikoa. Izan ere, Autonomia Erkidego honen eskumen eskusibokoak diren esparruetako ur-baliabideak babesteko eta bermatuko baditugu, plangintza hori egin behar da. Gaur egun ez dago zeregin hori betetzen duen administrazio-organorik, baina, Dekretu honen bidez, organoa sortu, eta hutsune hori betetzen da.

Horrenbestez, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak proposaturik eta Jaurlaritzaren Kontsei-

A su vez, el art. 8 m) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, atribuye al Lehendakari la facultad de firmar Decretos y ordenar su publicación y el art.26.3 atribuye a los Consejeros proponer al Gobierno, para su aprobación, Decretos sobre las materias propias de su Departamento.

El Decreto 306/2001, de 20 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente asigna en su artículo 15.a) a la Dirección de Aguas, de una parte, la elaboración, seguimiento y revisión de la planificación hidrológica de las cuencas comprendidas íntegramente en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, atendiendo a los criterios establecidos en los artículos 14.3, 40.4 y 41.2 del texto refundido de la Ley de Aguas, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio y, de otra, la participación en la elaboración de la planificación hidrológica de las cuencas intercomunitarias.

Para hacer frente a la necesidad de llevar a cabo con eficacia la tramitación y aprobación de documentos de planificación hidrológica, la determinación e implantación de perímetros de protección y declaración de acuíferos sobreexplotados resulta necesario, y así se establece en la Ley de Aguas, la creación de un órgano colegiado a tal efecto.

A la vista de lo expuesto, el presente Decreto detalla la composición del referido órgano colegiado, determina su naturaleza y reglas básicas de funcionamiento que posibiliten el desarrollo eficaz de las labores y funciones que le sean asignadas, toda vez que, en virtud del traspaso de las funciones y servicios en materia de Recursos y Aprovechamientos Hidráulicos y, más concretamente, para hacer posible la elaboración y revisión de la planificación hidrológica para las cuencas comprendidas íntegramente en la Comunidad Autónoma del País Vasco, resulta apremiante la creación del Consejo del Agua del País Vasco.

Es obvio, por ello, que el citado órgano colegiado debe ver la luz de forma inmediata para acometer la elaboración de la planificación hidrológica en las cuencas internas.

Hoy, con los planes hidrológicos de las cuencas intercomunitarias que afectan a Euskadi aprobados, promulgados recientemente la Directiva 60/2000 CE y el Plan Hidrológico Nacional, es ya inaplazable materializar la planificación hidrológica de las cuencas internas, ya que de ella depende la protección y garantía de los recursos hídricos de esos ámbitos de competencia exclusiva de esta Comunidad Autónoma, para lo que la actual carencia de órgano administrativo queda solventada con su creación por el presente Decreto.

Por todo ello, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, y previa delibe-

luak 2003ko otsailaren 18ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseilua.

1.— Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseilua uren esparruan eskumena duen sailari atxikitako organo aholku-emailea da. Kontseilua parte hartzeko organo gisa eratzen da, administrazioek eta EAEn uren esparruan aritzen diren eta gizartearen interesen ordezkari diren sektoreek parte har ditzaten.

2.— Horrez gain, EAEn uren arloan eskumenak ditzuten administrazioetako ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluan parte hartzen dutenez, kide anitzeko organo hau administrazio arteko koordinazio-tresna ere bada, parte hartzen duten administrazioen lurralde-eremuetan ur-baliabideak eta -aprobetxamenduak kudeatzeko tresna.

**2. artikulua.**— Osaera.— Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseilua, kide anitzeko organoa denez, honelaxe egongo da osatuta:

1.— Kide hauek izango ditu:

a) Kontseiluko burua uren esparruan eskumena duen saileko sailburua izango da.

b) Lehen buruordea Ingurumen-sailburuordea izango da.

c) Bigarren buruordea Eusko Jaurlaritzako Uren zuzendaria izango da.

d) Uren Zuzendaritzako Plangintza Hidrologikoaren Unitateko funtzionario arduraduna; hitzarekin baina botorik gabe.

e) Gainerako kideak.

f) Idazkaria uren arloan eskumena duen saileko funtzionario bat izango da, kontseiluburuak izendatutakoak; hitzarekin baina botorik gabe.

2.— Gainerako kideak honelaxe banatuko dira:

a) Sei kide egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkartzan, arlo hauetan eskumena duten sailetatik izendatutakoak: meteorologia eta klimatologia, industria, nekazaritza, herrizaingo, osasun eta lurralde-antolamenduaren arloetan.

b) Sei kide egongo dira foru-aldundien ordezkartzan; aldundi bakoitzak bi ordezkari izango ditu.

c) Bi kide egongo dira toki-administrazioen ordezkartzan; Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkartzarik gehien duen udalerrien elkarteak izendatuko ditu.

ración y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el 18 de febrero de 2003,

DISPONGO:

**Artículo 1.**— Consejo del Agua del País Vasco.

1.— El Consejo del Agua del País Vasco, órgano de naturaleza consultiva adscrito al Departamento competente en materia de Aguas, se configura como un órgano de participación de las distintas administraciones y de los sectores representativos de intereses sociales que en materia de aguas actúan en la CAPV.

2.— La participación en el Consejo del Agua del País Vasco de representantes de las distintas Administraciones con competencias en materia de Aguas en la CAPV hace también de este órgano colegiado un instrumento de coordinación interadministrativa en la gestión de los recursos y aprovechamientos hidráulicos en los ámbitos territoriales de las Administraciones participantes.

**Artículo 2.**— Composición. El Consejo del Agua del País Vasco, como órgano colegiado se conforma del modo siguiente:

1.— Estará integrado por los miembros que se señalan a continuación:

a) El Presidente, que será el Consejero del Departamento competente en materia de Aguas.

b) El Vicepresidente 1.º, que será el Viceconsejero de Medio Ambiente.

c) La Vicepresidenta 2ª, que será la Directora de Aguas del Gobierno Vasco.

d) El/la funcionario/a Responsable de la Unidad de Planificación Hidrológica de la Dirección de Aguas, con voz pero sin voto.

e) El resto de los vocales.

f) Actúa como Secretario/a, con voz pero sin voto, un/a funcionario/a del Departamento competente en materia de Aguas designado por el Presidente.

2.— Los demás vocales se ajustarán a la siguiente distribución:

a) Seis vocales en representación de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, designados de entre los Departamentos que tengan competencia en las siguientes áreas: meteorología y climatología, industria, agricultura, interior, sanidad y ordenación del territorio.

b) Seis vocales en representación de las Diputaciones Forales, a razón de dos por cada una.

c) Dos vocales en representación de las administraciones locales que serán designados por la asociación de municipios más representativa en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

d) Erabiltzaile moduan, ondorengoak izango dira: ur-honidura egiten duten erakundeek izendatutako lau kide, industriako erabiltzaileen ordezkari aritzen diren bi kide, energia-erabiltzaileen ordezkari aritzen diren bi kide, nekazaritzako erabiltzaileen ordezkari aritzen diren bi kide, eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteen ordezkari aritzen diren bi kide. Erabiltzaileen ordezkariak izendatzeko prozedura arauen bidez ezarriko da.

f) Kide bat egongo da Ur eta Itsasaldeen arloko Estatuko Administrazioaren ordezkarietan.

g) Naturaren alde aritzen diren elkarteen bi ordezkari egongo dira.

h) Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bat egongo da, urarekin zerikusia duten diziplina zientifikoetako irakasleen artean izendatutakoa.

3.– Kontseiluak eskatu ahal izango du funtzionarioak edota txosteneko agiriak idazten edo aztertzen aritu diren espezialistak eta, era berean, aztergai diren arloetan adituak diren lagunak bertaratzeko, aholkua eman dezaten.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluak osoko bilkuran eta batzorde iraunkorrean jarduteko ahalmena izango du. Era berean, beste batzorde edo ponentzia batzuk eratzea erabaki ahal izango du, haren ardurako gaiak aztertzeko, prestatzeko eta horien gaineko txostena egiteko. Batzorde edo ponentzia horiek izango dituzten osaera, jarduteko araubidea eta zeregina iraupena erabakiak finkatu beharko ditu. Jarduteko erak barne-jarduerako araudian ezarriko dira, eta hori Kontseiluak onetsiko du, kontseiluburuak proposaturik.

5.– Buruordeek, hurrenez hurren, kontseiluburua ordezkari dute, eta, beraz, buruaren zereginak beteko dituzte postua bete gabe dagoenean, kontseiluburua ez dagoenean, gaixorik denean edo legezko beste arrazoi- ren bat tartean denean.

### 3. artikulua.– Zereginak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluak honako zeregin hauek izango ditu:

a) Txostena egingo du erkidego barneko arroen Plan Hidrologikoa egiteari eta plan horren geroko berrikuspenei buruz, Gobernu Kontseiluak erkidego barneko arroen Plan Hidrologikorako proposamena onetsi aurretik.

b) Ezagutuko ditu erkidego arteko arroen plan hidrologikoen proiektuak eta, hala behar denean, horiei buruzko txostena egingo du.

c) Txostena egingo du, nahitaez, Dekretu honen xede diren gaien buruzko xedapen-proiektu orokorrei eta lege-aurreproiektuei buruz, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio erkideek onetsi behar dituzten horiei buruz.

d) En calidad de usuarios, los siguientes vocales: cuatro designados por los entes abastecedores de agua, dos en representación de los usuarios industriales, dos en representación de los usuarios energéticos, dos en representación de usuarios agrícolas y dos en representación de las asociaciones de consumidores y usuarios. Reglamentariamente se establecerá el procedimiento de designación de los representantes de los usuarios.

f) Un/a vocal, en representación de la Administración del Estado en materia de Aguas y Costas.

g) Dos representantes de las asociaciones de defensa de la naturaleza.

h) Un/a representante de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, propuesto de entre el profesorado de las diversas disciplinas científicas relacionadas con el Agua.

3.– El Consejo podrá recabar la presencia de funcionarios o especialistas que hayan intervenido en la redacción o análisis de los documentos sometidos a informe, así como de expertos en relación con los temas a tratar, al objeto de prestar su asesoramiento.

4.– El Consejo del Agua del País Vasco estará facultado para actuar en pleno y en comisión permanente. Podrá también acordar la constitución de otras comisiones o ponencias con funciones de estudio, informe y preparación de asuntos de su consideración. El acuerdo deberá identificar la composición, el régimen de funcionamiento y la duración temporal de su cometido. Sus formas de actuación se establecerán en las normas de funcionamiento interno que deberá aprobar el Consejo a propuesta de su Presidente.

5.– Los Vicepresidentes, por su orden, sustituyen al Presidente, ejerciendo sus funciones, en caso de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal.

### Artículo 3.– Funciones.

Son funciones del Consejo del Agua del País Vasco:

a) Informar la elaboración del Plan Hidrológico de Cuencas Internas y sus posteriores revisiones, con carácter previo a la aprobación por el Consejo de Gobierno de la Propuesta de Plan Hidrológico de Cuencas Internas.

b) Conocer e informar, en su caso, los proyectos de Planes Hidrológicos de las cuencas intercomunitarias.

c) Informar, preceptivamente, los anteproyectos de leyes y proyectos de disposiciones normativas de carácter general relativos a las materias objeto del presente Decreto que deban ser aprobados por las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

d) Proposamenak eta eskaerak aurkeztuko dizkie eskumena duten erakundeei, aintzat har ditzaten.

e) Administrazio Orokorrek edo foru- eta toki-administrazioek eskatutako txostenak egingo ditu, hain zuzen, bere ahalmenen arloko gaiei buruzkoak.

f) Uren Zuzendaritzak ebazpena eman aurretik, txostena egingo du gehiegi ustiatutako akuiferoen deklarazioaren eta babes-perimetroen zehaztapenaren espedientei buruz –horiek uztailearen 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Uren Legearen Testu Bateginak aipatzen ditu 56. artikuluan–. Hala-ber, egoki irizitako txostenak eta proposamenak egingo ditu, jabari publiko hidraulikoaren antolamenduari, administrazioari eta tutoretzari dagokienez.

g) Ezagutuko ditu berari aztertzeke utzitako edo, lege-mailako arau edo erregelamenduzko arau baten bidez, berari emandako gai guztiak, eta horiei buruzko erabakia hartuko du.

**4. artikulua.**– EAEko barneko arroen Plan Hidrologikoa egitea eta berrikustea.

1.– Lehenengo fasean, Uren Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek Planaren oinarritzko agiriak prestatuko dituzte. Hori egite aldera, hautatu, laburtu eta sistematizatu dituzte EAEko Administrazio Orokorrek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluan esku hartzen duten beste administrazio publiko batzuek egindako oinarritzko ikerketen eta azterlanen datu nagusiak, zehazkiago, Uren Legearen Testu Bateginak –uztailearen 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitakoak– 42. artikuluan ezarritako gutxieneko edukiekin zerikusia duten datuak.

2.– Une horretan, eta EAEko erkidego barneko arroen Plan Hidrologikoa Lurralde Antolamenduaren Gida-lerroek eta Lurraldeko Zati Planek zehaztutako lurralde-esparruan era egokian txertatuko dela bermatzeko, aholkua eskatuko zaio lurralde-antolamenduaren arloko sail eskudunari, indarrean dagoen lurralde-antolamenduak erkidego barneko plan hidrologikoaren xede diren obrak, jarduerak edo zerbitzuak kokatzeko eskaintzen dituen hautabideei, irtenbideei eta aukerei buruz.

3.– Txosten hori ikusita, Uren Zuzendaritzak Planaren gida-lerroen proiektua egingo du. Proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluan esku hartzen duten administrazioei bidaliko zaie, bai eta interesa izan dezaketen gainerakoei ere, egoki iruditzen zaizkien proposamenak edo iradokizunak egin ditzaten bi hileko epean.

4.– Aldi berean, jendaurrean jarriko da ikusgai, bi hileko epean.

5.– Izapide horiek bete ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluari helaraziko zaizkio Planaren gida-lerroen proiektua eta espedienteari egindako ohar eta iradokizun guztiak, horien gainerako txostena egin dezan.

d) Elevar propuestas y peticiones a los organismos competentes para su consideración.

e) Emitir los informes que le sean requeridos por la Administración General o por las Administraciones Forales y Locales sobre cuestiones vinculadas a su ámbito de facultades.

f) Informar, con carácter previo a la resolución por la Directora de Aguas, los expedientes de declaración de acuíferos sobreexplotados y determinación de perímetros de protección a los que se refiere el artículo 56 del texto refundido de la Ley de Aguas, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, así como emitir cuantos informes y propuestas sobre ordenación, administración y tutela del dominio público hidráulico se estimen convenientes.

g) Conocer y deliberar sobre cuantas cuestiones sean sometidas a su consideración, o le sean atribuidas por una norma legal o reglamentaria.

**Artículo 4.**– Elaboración y revisión del Plan Hidrológico de las cuencas internas de la CAPV.

1.– En una primera fase, los servicios técnicos de la Dirección de Aguas elaboraran la documentación básica del Plan, en la que seleccionaran, extractaran y sistematizaran los datos fundamentales de los estudios y trabajos realizados por la Administración General de la CAPV y por las otras Administraciones Públicas que participen en el Consejo del Agua del País Vasco, y que se relacionen con los contenidos mínimos establecidos en el artículo 42 del texto refundido de la Ley de Aguas, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio.

2.– En este momento, y a fin de garantizar la correcta inserción del Plan Hidrológico de las cuencas internas de la CAPV en el marco territorial definido por las Directrices de Ordenación del Territorio y de los Planes Territoriales Parciales, se consultará al Departamento competente en el área de ordenación del territorio, sobre las distintas alternativas, soluciones, posibilidades que la ordenación territorial vigente ofrezca para la localización de las obras, actividades o servicios que constituyan el objeto del citado Plan Hidrológico.

3.– A la vista de este informe la Dirección de Aguas elaborará el proyecto de directrices del Plan, que será remitido a las Administraciones que participen en el Consejo del Agua del País Vasco, y a cuantas otras pudieran estar interesadas, para que presenten en el plazo de 2 meses las propuestas o sugerencias que consideren oportunas.

4.– Simultáneamente se habilitará un período de información pública por plazo de dos meses.

5.– Realizados los trámites anteriores, del proyecto de directrices del Plan y de cuantas observaciones, sugerencias se hayan aportado al expediente se dará traslado al Consejo del Agua del País Vasco para su informe.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluari entzun ondoren, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak EAeko barnealdeko arroen Plan Hidrologikoaren gida-lerroak onetsiko ditu.

7.– EAeko barnealdeko arroen Plan Hidrologikoa egiteko bigarren fasean, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Euskal Herriko Ingurumen Batzordeak eta Landaberrik txostena egingo dute onetsitako planaren gida-lerroei buruz.

8.– Aholkularitzako organo horiek planaren gida-lerroei buruz egindako txostenak eta indarrean dagoen araudiari jarraiki eska daitezkeen gainerakoak aztertu ondoren, Uren Zuzendaritzak EAeko barnealdeko arroen Plan Hidrologikorako proposamena idatziko du. Proposamen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluari aurkeztuko zaio, horren gaineko txostena egin dezan.

9.– Azken txosten hori egindakoa, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak Gobernu Kontseiluari aurkeztuko dio EAeko barnealdeko arroen Plan Hidrologikorako proposamena, onetsi dezan. Eta, onetsitakoan, Estatuko Administrazio Orokorrari bidaliko zaio, EAeko barnealdeko arroen Plan Hidrologikoa onetsi dezan.

10.– EAeko barneko arroen Plan Hidrologikoak jasota izango ditu plana bera berraztertzeke egoerak, epeak eta prozedura.

**5. artikulua.**– Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa.

EAeko barnealdeko arroen Plan Hidrologikoari eta plan horren geroko berrikuspenei ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren prozedura ezarriko zaie. Prozedura hori Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeak jasotzen du 43. a) artikuluan.

**6. artikulua.**– Gehiegi ustiatutako akuiferoen deklarazioa egitea eta babes-perimetroak zehaztea.

1.– Uren Zuzendaritzak, jarraian ezarritako prozeduraren arabera, adierazi ahal izango du alderdi bateko lur azpiko baliabideak gehiegi ustiatuta daudela edo gehiegi ustiatzeko arriskua dagoela. Prozedura horrexerri jarraiki, babes-perimetroak zehaztuko dira, Uren Legearen Testu Bateginak –uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitakoak– 56.2. eta 56.3. artikuluetan arautzen dituenak.

2.– Espedienteak hasiko dira ofizioz, akuiferoaren Erabiltzaileen Elkarteak eskaturik –horrelakorik badago–, edota gutxienez urtean ateratako kopuruaren erdia legez erabiltzen ari direla egiaztatzen duten erabiltzaileek eskaturik.

3.– Uren Zuzendaritzak proposamen bat aurkeztuko du akuiferoa gehiegi ustiatuta dagoela deklaratzeko edo babes-perimetroak zehazteko. Proposamena tartean dauden administrazio publiko guztiei eta interesdun

6.– Oído el Consejo del Agua del País Vasco, el Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente acordará la aprobación de las directrices del Plan Hidrológico de las cuencas internas de la CAPV.

7.– En la segunda fase de elaboración del Plan Hidrológico de las cuencas internas de la CAPV, las directrices del Plan aprobadas se someterán a informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, de la Comisión Ambiental del País Vasco, y de Landaberri.

8.– Previa consideración de los informes emitidos en relación con las directrices del Plan, por estos órganos consultivos y cuantos otros sean exigibles por la normativa vigente, la Dirección de Aguas redactará la Propuesta del Plan Hidrológico de las cuencas internas de la CAPV, que será presentada para su informe al Consejo del Agua del País Vasco.

9.– Evacuado este último informe, el Consejero de Ordenación del Territorio y medio Ambiente elevará a Consejo de Gobierno la Propuesta del Plan Hidrológico de las cuencas internas de la CAPV para su aprobación, y posterior remisión a la Administración General del Estado para la aprobación del Plan hidrológico de las Cuencas Internas de la CAPV».

10.– El Plan Hidrológico de las Cuencas Internas de la CAPV incluirá los supuestos, plazos y procedimiento para su revisión.

**Artículo 5.**– Evaluación conjunta de impacto ambiental.

El Plan Hidrológico de las Cuencas Internas de la CAPV y sus posteriores revisiones estarán sometidas al procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, referido en el artículo 43a) de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.»

**Artículo 6.**– Declaración de acuíferos sobreexplotados y determinación de perímetros de protección.

1.– La Dirección de Aguas podrá declarar, conforme el procedimiento que a continuación se establece, que los recursos hidráulicos subterráneos de una zona están sobreexplotados o en riesgo de estarlo. Conforme a este mismo procedimiento se determinarán los perímetros de protección regulados en el artículo 56.2 y 56.3 del texto refundido de la Ley de Aguas, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio.

2.– Los expedientes se iniciaran de oficio o a instancia de la Comunidad de Usuarios del acuífero, si lo hubiera, o de usuarios que acrediten estar utilizando legalmente, al menos, la mitad de los volúmenes extraídos anualmente.

3.– La Dirección de Aguas elaborará una propuesta de declaración de acuífero sobreexplotado o de determinación de perímetros de protección que será remitido a todas las Administraciones Públicas afectadas y a

guztiei bidaliko zaie, eta hilabeteko epea emango zaie horren gaineko oharrak, iradokizunak, hautabideak eta proposamenak egiteko.

4.– Uraren Zuzendaritzak, aurreko izapideen emaitzak ikusita, dagokion erabakia hartuko du. Erabaki hori, espedientearekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluari helaraziko dio, nahitaezko txostena egiteko.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluak txostena egin ondoren, Uren Zuzendaritzak gehi- gi ustiatutako akuiferoaren deklarazioari buruzko eta babes-perimetroak finkatzeari buruzko ebazpena eman- go du.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Lurralde Antolamendu eta Inguru- men sailburuari baimena ematen zaio beharrezkoak di- ren xedapenak eman ditzan Dekretu honek xedatuta- koa garatzeko eta betetzeko.

*Bigarrena.*– Dekretu hau indarrean sartuko da Eus- kal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko otsailaren 18an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu eta  
Ingurumen sailburua,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

todos aquellos interesados, para que en el plazo de un mes formulen sus observaciones, sugerencias, alternativas y propuestas.

4.– La Dirección de Aguas, a la vista del resultado de los trámites precedentes adoptará el acuerdo correspondiente, del que dará traslado, junto con el expediente al Consejo del Agua del País Vasco para su informe preceptivo.

5.– Evacuado el informe del Consejo del Agua del País Vasco, la Dirección de Aguas resolverá sobre la declaración de acuífero sobreexplotado o determinación de perímetros de protección.»

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se autoriza al Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de lo dispuesto en el presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entra en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de febrero de 2003.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio  
y Medio Ambiente,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.